

www.noaia.com

Noaia!!!



NabarHerria, egun osoko azoka eta festa larunbat honetan



Hemen dator Korrika
Igande honetan, goizeko 7:00etan

Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2010 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2010eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

Iritsi da Udaberria



 **URTINEA
LORATEGIA**

- Garaiko landareak zure lorategi eta balkoitarako
- Amaren egunean era guztietako aukerak oparitzeko

Egun osoa irekia • San Esteban auzoa • 943 362 255 Faxe: 943 366 054 • urtinea@urtinea.com

Albiste iruditan!

Giro ederra, larunbateko kontzertu-gauan

Amaitu dira Atez Ateko Bilketaren 2. urtemugako ekitaldiak. Zubietako flash-mob ekimena, Bertso Kantu Jira Afaria eta Nazioarteko Jardunaldien ondoren, martxoaren 16an abian jarri zela bi urte bete zituen hondakinen bilketa sistemari lotutako jaialdia ospatu zen larunbatean, kontzertu gau batekin. Odolaren Mintzoa eta Desegin herriko musika taldeek emanaldia eskaini zuten eta haiekin, Berri Txarrak gaua borobiltzeko. Giro ederra nagusitu zen frontoian, baita Dema plazan eta Sutegin zabaldu ziren txosnetan ere.



TOPERA GOZATU ZUTEN KONTZERTURA BERTARATU ZIREN LAGUNEK.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 373 228	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 361 412	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jenduarreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiete, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



MAIALEN UNANUE

Hausnartuz

Gizartearen unitate oinarrizkoena subjektua da, eta subjektu bakoitzaren baturak, beraz, osatzen du gizartea. Haien artean izaera ezberdina duten eta ezinbestekoak diren harremanak garatzen dira eta horien ondorioa da gizartea; nolakoak subjektuak, euren ekintza eta pentsamoldeak, halakoak gizarteak. Guztiek dute eragiten gizartearen ekonomian, politikan, kulturaren, hezkuntzan... Ezer ez da kasualitatekoa: goitik behera, behetik gora, ezker eskuin gertatzen direnak, arrazoi askoren konbinaketaren ondorioz ematen dira.

Subjektu bakoitza bera ere, jaiotzen den momentuan, herentzia eta testuinguru historiko, sozial, etabar luze baten oinordeko bihurtzen da. Testuinguru batean hazten eta hezten da; inguru sozial konkretu batek hornitzen du subjektua. Onerako, txarrerako, batzuen poz edo tristurarako, subjektuak inguruan duena da bere iturria, errealitate konkretu bat behatu eta barneratzen du: ikasi egiten du. Horrek ez du derrigor esan nahi inguruan duena batere objektiorik egin gabe onartuko duenik. Nolanahi ere, jendarteak egiten du pertsona eta pertsonak egiten dute jendartea.

Ordenagailuak, PSP, Nintendo DS, Wii, Xbox, Iphone, Ipod Touch, Ipad... Desira handiak pizten dituzte guztiek; guztiok nahi dugu horrelako zerbait: aplikazio asko (zenbat

eta gehiago hobe) dituzten bideojoku, pantaila, telefono (aldi berean ordenagailu/liburu/telebista/...) mugikorrek daude modan. Aipa dezagun, bide batez, guztiak direla indibidualizatzaileak: guztiek gaituzte jendartetik bakartzen, aldentzen, aislatzen, bakartzen.

Hori testuingurua, eta hau errealitatea. Asko hitz egiten da gazteen pasibitateaz, interes faltaz. Egia esate aldera, ez naiz batere harritzen. XXI.mendearen eta aurrerapen teknologikoaren (eta bide batez, etekin ekonomikoaren) izenean, ez ote diguten jendartetik aldentzen erakutsi. Ez ote zaigun ekintzaile ez izaten erakutsi, arazoei aurre ez egiten, hori da nire zalantza.

Duela aste batzuk egindako flashmob-ak bildu zuen jendetza ikusteak harritu egin ninduen, zinez. Dena ez omen dugu galdu, oraingoz bederen. Hauteskundeak konturatzerako gairen ditugu eta ikusiko dugu zenbateko parte hartzeak ematen diren han eta hemen. Nire iritzi xumean, hutsune garrantzitsuak tarteko hezi gaituzte, eta hutsarte horiek gero eta handiago bihurtzen ari dira. Zer erakusten diegu makina bat eskuartean hartuta beste ezeri jaramonik egiten ez dion haurrari? Afiziorik, jakinminik, kezkarik, inizatibarik, erantzukizunik ez izaten. Hori da emaitza, hori da testuingurua, etorkizuneko subjektuen esku geratuko den herentzia.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika!

Zer moduz guraso hori?

Ni hiru semeen ama naiz, guraso alegia, eta beste gurasoei laguntza eskatzen dizuet galdera bati erantzuna emateko.

Denok dakigu ez dela bide erraza gure seme-alaben heziketa. Beraien etorkizuna gure eguneroko borroka da eta horrexegatik asko arduratzen digu eguneroko zereginak. Esate baterako: eskolako lanak, bertako eta etxeko jarrera, aisialdia... Hamaika amorrazio, neke eta kezka izaten ditugu baina baita ere emaitza onak jasotzen ditugu. Beraz, borroka honek merezi duela ados gaude, ezta?

Badaude beste zeregin batzuek non ez da inoiz borroka bat izan. Gure haurrak gaur egunekoak esan nahi dut, jai

orduko zaborraren arazoa ez dute arazo ikusten. Badakite zein eduki ontzitan bota zabor bakoitza eta gure herrian atez ateko sistema martxan jarri denetik zeresanik ez. Berdin du zein lagunak etxera joaten diren, denek berdin bereizten baitute.

Aiton-amonen etxean ere berdin. Gustua ematen dit nire semeek zein erraz egiten duten zeregin hau ikustek.

Badakite etxeko erosketak egiterakoan etxetik poltsa eramanez gero zabor gutxiago sortzen dutela.

Badakite ere ogia erosterakoan bere zorroa eraman behar dutela eta ikusten didate arraina edo okela erostera joaten naizenean fianbrera bat eramaten dudala eta arrain usainik ez dela garatzen

etxeko zaborretan.

Gure etxean zaborra geroz eta gutxiago osatzen zaigu. Hori da ere gure helburua.

Baina erraustegi bat jartzen bada erregaia beharko du funtzionatzeko, hau da, zaborra, bestela ez dauka izateko arrazoirik.

Orduan zer esan behar diet nire semei, ez bereizteko zaborra horren txukun? Ez kezkatzeko erosketak egiterakoan zenbat plastikozko poltsa behar ditugun? Zaborra sortu behar dela?

Ez al da hobe zaborra murriztea eta osasuna zaintzea?

**Isabel Agirresarobe,
Usurbilgo ama bat**

Udal lursailen zati bat baratze ekologikoak jartzera bideratu nahi da

Etorkizunean udal jabetzakoak izan baina erabiltzen ez diren lursailen zati batean baratzeak jartzeko aukera eskaini nahi du Usurbilgo Udalak. Baratzeak jartzeko emakida eta guneok erabiltzeko araudia onartu zuen udalbatzak hasieraz, martxoaren 29ko osoko bilkuran.

Proposamenaren alde bozkatu zuten gobernu taldearekin batera, PSE-EE eta Aralarreko udal ordezkariak. EAJ-PNVko ordezkaria abstenitu zen eta Alkarbide udal taldea aurka agertu zen. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko 30 laneguneko epea egongo da. Halakorik ez bada, araudia behin betiko onartutzat joko da.

Hasieraz onartu den araudiaren arabera, baratzeon erabilera eskubidea, udale-



ARAUDIA BEHIN BEHINEKO IZAERAZ ONARTU ZUEN UDALAK.

rrian erroldatuta egon eta lurren bat jabetzan edo errentan ez duen pertsona orok izango du, urtebeterako, bost urtera arte luzagarria izanik.

Eskabidea aurkezteko lehentasuna, langabetu, jubilatuz, pentsiodun edota konpostatze komunitarioaren ardura-dunek izango dute. Parekidetasuna ere bermatu nahi du Udalak.

Eskabideak aurkezteko epea alkateztzak irekiko du.

Ingemarren "hileta" egin zuten Donostian

Zuzendaritza taldeak 60 behargi-unei eragiten dien Enplegu Erregulazio Espedientearen aurka greba mugagabea hasi zutela lehen hila beteko da ostegun honetan, apirilaren 14an. Bezperatan, joan den ostiralean, Ingemarren "hileta" irudikatu zuten Donostian deitua zuten manifestazioan, lutoz jantzitako langile eta herritarrek. Alternatiba, Aralar, Ezker Batua, Eusko Alkartasuna eta Ezker Abertzalea Ingemarrek aurkeztua duen Enplegu Erregulazio Espedientearen aurka agertu dira, bost alderdiok batera sinatu duten ohar baten bidez.



Ika-mika!

Lo zorrotikan atera nintzen
ireki nuen begia
Ta segituan antzeman nitun
hamaika injustizia
Bi atxilotu, lau langabetu
eguneroko ogia
Ireki zank belarria
orain doa ta egia
argia eta garbia
Geure etsaiek geu zapaltzea
ez denez onargarria
Geure artean menperatzea
ote dugu zilegia?

Doimua: Lazkao Txiki (Andoni Egaña)

Askatasuna non?

Usurbilera begira jarri
eta zenbat injustizi
Lerro hauetan nahiko nizueke
hautako bat adierazi
Zenbait gazteren askatasuna
U.F.T-k galarazi
Nahia betetzen ez utzi
mehatxuz beldurrarazi
hola al gaituzte hezi?
Txori askeen hego moztea
dezagun bada gaitzetsi
Ukatzen duen jende orori
hortz zorrotzak erakutsi

Gaztetzearen futbol partiduk
ez jokatzera behartu
Horrexegatik hamaika gaztek
ezin izan parte hartu
Agindu honi aurregin ordezkari
heuren hitzetan lokartu
Aurrera gazte itzartu
denok gaitezen elkartu
Zapaltzaileei oldartu
Lau puntu ziztrin galtzeagatik
denok bagera beldurtu
Soldata kinkan jartzerakoan
noraino ote makurtu?

Eñaut Lasarte Agirre

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

piatxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak

TABERNA

Andoni Atxega izango da EAJ-PNV alderdiko zerrendaburua datozen udal hauteskundeetan

Eusko Alderdi Jeltzaleko alderdikidea da aspalditik. Eta NOAUA!ri igorritako idatzian aitortzen duenez, “nere alderdiarentzat eta herriarentzat ardura eta konpromisoarekin lanean jardutea ez da berria niretzat. Orain udal zerrendetan zerrendaburu gisa aurkezteak konpromiso hori guztiz handitu egiten du”.

EAJ-PNVko udal zinegotzia izan da hainbat urtez. Baina alkatetzarako hautagai moduan, hauxe du lehen aldia. Erabakia ez dela erraza izan dio Andoni Atxegak: “erantzukizun handiko lana da. Gainera kontuan izan behar da lantegiko lan orduetaz aparte izaten dela lan honen jarduera, beraz dedikazio handia eskatzen du”.

Aurrera pausoa emateko, garrantzi-

tsua izan da bere familiaren eta aurkezten den taldearen babesa: “argi daukat ez naizela ni bakarrik aurkezten baizik eta ilusioz eta kapazitatez beterik dagoen talde bat aurkezten garela. Talde orekatua da, tartean nire moduan zinegotzi izandako batzuk daude eta baita lehen aldiz lanerako prest agertu diren beste batzuk ere”.

“Batu gaitezen” lemapean

“Batu gaitezen” lemarekin aurkeztu dira hauteskunde kanpaina honetan. Atxegaren esanetan, “dudarik gabe lema horrekin jarraitu nahi genuke etorkizunean ere. Alderdi politiko guztiekin harreman nomalizatua daukagu eta hori gure herriaren mesedetarako dela uste dugu”.

EAJ-PNVko kideen lehen helburua, “elkar lanean tinko eta apaltasunez ari-



ANDONI ATXEGA, EAJ-PNVKO HAUTAGAIA.

tzea da, gure herriak dituen beharrei irteera emateko. Baita ere bakea eta elkarbizitza lortzea da gure nahia. Eta azkenik nola ez, gure herriak erabakitzeko eskubidea lortu dezan gogor ekingo diogu”.

Hileta zibilen ordenantza berria, indarrean

Hil ondorengo hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza, erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik sortu da, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko.

“Gure gizartean edo herrian bertan elkarren ondoan bizi diren erlijioek hildakoei agur esateko liturgia-ekitaldiak egiteko toki edo tenpluak dituzten bezala, Usurbilgo Udalak gizartean gero eta eskaera handiagoa duen behar bati erantzun behar dio”, usurbil.net web orrialdeak dioenez. “Ordenantza honen helburua, beraz, Usurbilgo gizarte zibila



ERLIJIORIK GABEKO HILETAK EGITEKO AUKERA DAGO ORAIN.

osetzen duten familiek, adiskideek, erakundeek edo taldeek beren hildakoak omentzeko edo horiei agurtzeko egin nahi dituzten ekitaldiak baimentzeko arauak ematea da, hala, pertsona horien ekarpenak edo balio etikoak edota gizatiarrak onartzeko”.

Zubietako Herri

Batzarrerako hautagaiak aurkezteko garaia da

Maiatzaren 22an, udal eta foru hauteskundeekin batera, Zubietako Herri Batzarreko kideak hautatzeko hauteskundeak egingo dira.

Baina bozka eman baino lehen, hautagaiak aurkeztu behar dira.

Herri Batzarreko hautagai izateko asmoa dutenek apirilaren 20tik maiatzaren 2ra arteko epea izango dute. Hautagaiak Zubietan helbideratuak egon beharko dute eta beraien nahia idatziz jakinarazi behar diote dagokion Udalari (Donostia edo Usurbilgoari).

**Kima**
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

AITOR ALKORTA
Arotz lanak, era guztietakoak
Sukaldeak
Furgonetak norberaren gustora egokituak
Furgonetan homologazioa
629 789 288
alkortaitor@yahoo.es

Eustakio Arrojeria izango da Aralar alderdiko zerrendaburua datozen udal hauteskundeetan

Azken legealdi honetan, Aralarrek bi zinegotzi izan ditu. Lau urte eta gero, “berriro aurkezten gara herritar askoren nahiari erantzunez. Urte hauetan egindako ahaleginari eta lanari esker eskarmentu handia lortu dugu eta, gainera, eratu dugun lan-taldearen babes, indarra eta sostengua dugu. Gogo biziz eta indarberrituta, herriarekin herriaren alde lan egiteko asmoz aurkezten gara”. Eustakio Arrojeria izango da alkatetzarako Aralarren hautagaia.

Herriarekin herriarentzat, baina ezkerreko eta euskal humanismoaren baloreak berreskuratze aldera aurkeztuko dira udal hauteskundeetara Aralarrekoak, “ezkerretik landuta herritarren arteko bizikidetzeta eta bizi-kalitatea hobetuko dugunaren ziurtasunez”.

Aralar alderdiaren esanetan, egoera politiko orokorrak ez du onera egin baina “txalotzekoa da Ezker Abertzaleko *Batasuna* ildokoek bide politikoaetik soilik jarduteko hartu duten erabaki sendoa. Salatzen da, berriz, Espainiako Gobernuaren jokaera, berriro ere ez baitu egoerak exijitzen duen mailarik erakutsi, ez du *Sortu* legeztatu. Ondorioz, oraingotan ere ez dugu era normalizatuan lehiazteko aukerarik izango”.

Programaren ildo nagusiak

Baina Ezker Abertzale zabal eta zibiletik egungo politikari benetako alternatiba eskaintzea da Aralarren helburua, “eta horretan dihardugu”.

Asteartean Sutegin egin zuten agerraldian, lan-ildo nagusiak ere aurreratu zituzten.

Herritarrei entzuten eta hauen beharrei erantzuten dakien udaletxea sustatu nahi du Aralarrek, parte-hartzera bultzatzen duena, gardena eta herritarren zerbitzura dagoena.

Hirigintzan, “hazkunde orekatua sustatuko dugu, herri nortasunari eutsiz. Elkarren errespetuan bizitzeko herria eraiki nahi dugu, integratzailea”.

Ongizatearen arloan, sistema publiko sendo eta integratzailea herritarren zerbitzura ipini nahi dute: “Baztertuta geratze-



ERDIAN DA EUSTAKIO ARROJERIA, REBEKA UBERAREKIN ETA USURBILGO ZERRENDAN JOANGO DIREN HAINBAT KIDEREKIN BATERA.

ko arriskua duten pertsonen gizarteratzea sustatu; adineko pertsonen zaintza duina izan dezaten bitartekoak jarri; genero berdintasunerako udal plana garatu”.

Hezkuntzan, besteak beste, “eskola publikoaren eskaerari bide egiten lagunduko diogu, baina baita Udaregi Ikastolari ere”.

Kulturari, “herriko sortzaile eta talde eragileak izango ditugu kultur erreferente nagusizat”. Honekin batera, taldeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatu, Potxoenea egokitu eta Zumarte musika eskolaren leku arazoari irtenbidea aurkitu...

Euskararen IV. Udal Plana garatu nahi dute eta “euskara ikasteko kanpainak egin eta erraztasunak eman”.

Ingurumenari dagokionez, “ez errausteko plantari, bai atez ateko bilketa-sistemari eta “zero zabor” ekimenari. Saria hezegunearen proiektua garatu”.

Nekazaritzan, “bertan ekoizten diren produktu naturalen kontsumoa sustatu. Oria ibaiaren erriberak nekazaritzarako berreskuratu”.

Kiroldegia berrantolatu eta “kirol elkarte eta taldeak sustatu eta elkarlanari jarraipena eman”. Gazteen arloan, euren ekimenak bermatzeko bideak ireki...

Rebeka Ubera, Ahaldun Nagusirako hautagaia

Ireki bidea herriari, ireki bidea ezkerreari. Lema hori erabili zuten Aralarreko kideek, asteartean Sutegin egin zuten ekitaldian. Euren esanetan, inoiz baino beharrezkoagoa da, Ezker Abertzale indartsu eta zabala eraikitzea. “Eta Aralarrek, zeregin horretan dihardu, etorkizuneko ezker abertzale zibil eta zabalaren oinarriak lantzen”. Hala zioen Aralarrek Usurbilgo alkatetzarako zerrendaren aurkezpenean. “Ezker Abertzale eraginkorrari eta eraldatzaileari bidea irekiz, gaur egun, gure erakundeak gobernatzen dituzten, eskunari EAJ, PSE-EEri aurre egingo diona. Benetako alternatiba izango dena, eta ez alternantzia. Are gehiago,

bizi dugun egoera sozio-ekonomiko larri honetan, non langabezi tasak egunetik egunera gora egiten duten”.

Aralarrek emaniko hitza, euskal hitza bete nahi duela dio “eta beteko du: hitza hitz. Ezkerreari bidea irekiz. Erakundeetako ateak herritarrei irekiaz, beraiekin, eskutik egunerokoan lan eginez, inongo manipulaziorik gabe”. Aniztasuna oinarri izanik, “desberdinekin adostasunak bilatzeko gai izango dena, ezkerrearen erradikal-tasunetik, edukietan oinarrituta, akordioetara iritsiz, maximalismoak alboratuz”.

Rebeka Ubera izango da Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaia.

Garbitaniak eginiko kontratazioei buruzko informazioa jaso nahi du Hamaikabatek

Usurbil, Hernani eta Oiartzungo gobernu taldeek eraturiko Garbitania Zero Zabor SL enpresa publikoari kontrola egiteko udal oposizioek eragozpen handiak dituztela adierazi zuten, hiru udalerritako Hamaikabateko kideek joan den astean eskaintako prentsaurrekoan. Informazio falta eta iluntasuna dagoela diote, eta euren ustez, “enpresa hori besteen kontrola saihesteko sortu zuten”.

“Informazio guztia lortu arte ez dugu etsiko”. Adierazpenekin, Garbitania enpresa publikoak eginiko kontratazioen inguruan datuak galdegin ez amaitu zuten Hamaikabateko ordezkariak, apirilaren 6an Hernaniko Biteri kultur etxean eskaini zuten prentsaurrekoa.

HAMAIKABAT

“Garbitaniak eginiko kontratazio hauek argitu behar ditu”

Usurbil eta Hernaniko Hamaikabateko ordezkariak, Luis Mari Ormaetxeak eta Iñaki Arratibelek hurrenez hurren, eta Oiartzungo Oartzunbai taldeko zinegotzi Xanet Arozenak aipatu erakundeak eginiko kontratazioei lotuta, garbitasuna eta garrantasuna eskatzen zuten. “Garbitaniak bere izena garbitu behar du eta eginiko kontratazio hauek argitu behar ditu”, dio kaleratu duten prentsa oharrak. Gaineratzen dutenez,



KONTRATAZIOETAN, IRREGULARTASUNEN SUSMOAK DITUZTE. HORREGATIK ARI DIRA INFORMAZIO ESKE.

“kontratazioetan emandako irregulartasunen susmo handiak ditugu eta informazio faltak ez du ikuspegi hori aldatzen uzten”.

Informazio eske otsailetik

Otsailean gai honi loturiko informazioa eskatu zutela, baina ez duela jaso adierazi zuten Hamaikabateko ordezkariak. Mail bidez, lanpostu bakoitzeko zenbait hautagai aurkeztu ziren, frogak egon badira hautagaiek zenbateko puntuaketa lortu duten, tribunala nortzuk osatzen zuten, edota lanpostu bakoitza betetzeko jarraitu den prozedura nolakoa izan den jakin nahi dute. Pertsonalari lotuta ere Garbitanian 34.500 biztanleei zerbitzua emateko 11 lagun kontratatatuak daudela salatzen du Hamaikabatek. San Marko Mankomunitatean aldiz, alderdi bereetik diotenez, “306.000 biztanleei zerbitzua emateko, funtzio berdintsuak egiten 7 lagun daude”.

Zalantzak Imanol Azpirozekin

Hamaikabateko ordezkarien esanetan, harridura eragin die bereziki Imanol Azpiroz udal zinegotzi eta San Marko Mankomunitateko lehendakari ohiaren kontratazioak. Hamaikabaten arabera, Azpirozek Garbitaniako aditu bezala aurkeztu du bere burua Antzuolak atez ateko bilketa jartzeko aurkeztu duen eskaintzan. Azpiroz Garbitaniako administrazio kontseiluko kide dela gogorazten dute Hamaikabatek eta horregatik, diotenez, “Azpiroz jaunak bere burua kontratatatu duen susmoa daukagu, edo bere kontseilari izaera bere burua kontratatatzeko erabili duela”. Euren susmoa argitzeko informazioa eskatzen dute. Azpiroz hautatu duen tribunala nortzuk osatzen duten, lanpostu deialdira zenbat hautagai aurkeztu ziren, hautagaiek probetan zenbateko puntuaketa lortu zuten eta zer nolako prozedura erabili den jakin nahi du Hamaikabatek.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K/ Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tf 36 21 64
USURBIL

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. © 943 362 725

Korrika 17 badator... igande goizaldean

Trebiñotik hilaren 7an abiatu eta hamar egunera, igande honetan apirilaren 17an helduko da Korrika 17 Usurbila. “Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari” aldarripean goizaldeko 6:30ak aldera Mapilera ailegatzea espero da euskararen aldeko lasterketa.

Orio aldetik Aginaga zeharkatu eta N-634 errepidetik barrena, Usurbilgo herri erdigunera ailegatuko da Korrika 17. Bordatxo paretik igaro eta handik Kalezarrera igoko dira korrikalariak. Kale Nagusira jaitsi gero, eta handik Santuenerako bidea hartuko du AEK-

k antolaturiko ekimenak. Zubieta alderik alde zeharkatu eta Lasarte-Oriarantz joko du ondoren.

Igande honetan bertan antolatzaileek Donostian kokatua duten helmugara ailegatuko da Korrika 17, eguerdiko 12:30ak aldera. Informazio gehiago: korrika.org

Korrika Txiki, ostegunez

Lasterketa nagusia Usurbildik igaro aurretik, ohi denez, Udaregi ikastolako ikasle eta irakasleak euren Korrika Txiki ekimena burutuko dute ostegun honetan, apirilaren 14an, 14:30-16:30 artean.



ORIOTIK AGINAGARA JOKO DU ETA HANDIK USURBILERA.

Korrika ailegatu bezperan, NabarrHerri azoka

Euskal kultura eta nafar identitatea gizarteratzen jarraitzeko lan horren baitan ekitaldi sorta antolatu du Nafartarrak Kultur Taldeak aste honetarako. Bi hitzaldi eta larunbatean, Korrika 17 ekimenari lotuta ospatuko den NabarrHerri azoka eta kultur gunea.

1512ko Nafarroako Konkistaren bostgarren mendeurrena betetzeko urtebete falta den honetan, antolakuntzatik memoria berreskuratzeko beharra azpimarratzen dute egungo errealitatea beste modu batean ulertu ahal izateko.

Herri bazkaria, Korrikaren alde

Helburuokin ospatu zen asteartean Nafartarrak taldeak antolatu dituen bi hitzaldietan lehena, “alderdikrazia” aztergai hartuta, Pako Aristik Sutegiko auditorioan eskaini zuena. Leku berean baina ostegunez, galdetzaile lanetan arituko da Aristi. Hitzlari lanetan Benito Lertxundi. Heziketa politikoaren beharra hartuko du ahotan abeslari oriotarrak.

NabarrHerri azoka eta kultur gunek borobilduko du astea. Euskal Herriko ekoizleen produktuen salmenta, antzerki eta musika emanaldiak, kantu-jira edota hitzaldiak tartekatuko dira larunbat egun

osoan zehar. Korrika 17 kanpainarekin bat egingo du ekimenak. Haren aldeko herri bazkaria ospatuko da hilaren 16rako iragarria duten egitarauaren baitan.

Apirilak 14, osteguna

19:00 Hitzaldi-solasaldia Sutegiko auditorioan.

Gaia: “Heziketa politiko baten beharraz, Benitoren solasean”. Hitzlaria: Benito Lertxundi. Galdetzailea: Pako Aristi. Sarrera doan.

Apirilak 16, larunbata

NabarrHerri: kultura gunea eta azoka. Egun osoan, frontoian eta Dema plazan: “1512 Nafarroaren konkista” erakusketa iraunkorra eta euskal produktuen azoka izango dira.

-Euskal Herri osoko ekoizleen euskal produktuen azoka: 30 bat postu. Iparraldetik: Laborantxa Ganbara, Idoki... Hegoaldetik: Lur Lan Baserriar Elkarteak...

-Erregegi bat izango da egun osoan zabalik, jatorduetarako.

10:30 Azokaren irekiera.

11:30 Hitzaldia: “1512 Nafarroaren konkista”. Nafarroa bizirik-en aurkezpena.

12:30 Antzerkia: “Ganboatarrak eta oinaztiarrak”.



KANTARI XIBERUTARRAK EGUERDIAN ARITUKO DIRA.

13:00 Kantaldia: Jean Bordaxar, Robert Larrandaburu, Jean Noel Pinque eta Jean Pierre Luro kantari xiberutarrak.

14:00 Korrikaren aldeko herri bazkaria. Bazkarirako txartelak Txiribogan eta Etumeta euskaltegian salgai, 15 eurotan.

15:00 DVD emanaldia: “Gipuzkoaren jatorria”.

16:00 Ipuin kontaketa: “Arrainherriaren memoria galdua”.

17:30 Hitzaldi musikatua: “Euskal musika modernoaren historia”. Andoni Tolosa “Morau”.

19:00 Musika emanaldia: LauR. Nafar kantu eta doinu zaharrak.

20:00 Kantu Jira kaleetan zehar. Euskal kantuak entzuteko eta abesteko parada.

Antolatzaileak: Nafartarrak taldea, Etumeta Euskaltegia eta Usurbilgo Udala.



Ogasunarekin hitzordua jartzeko garaia heldu da

Autolikidazio proposamenak onartzeko epea zabalik egon arren, errenta aitortpenak aurkezteko epea datorren astelehenean, apirilaren 18an zabalduko da. Ekainaren 25era arte herritarrak Ogasunarekin ditugun kontuak argitzera deituak gaude. Aitorpena onartu aurretik ordea, asko izan ohi dira banketxe edo gestoretara joan ohi direnak. Kanpainari buruzko zehaztasunak jasotzeko Hernaniko Kardaberaz kalean kokatzen den Hator gestorian izan gara.

Errenta Aitorpenari lotuta, zer zerbitzu eskaintzen dizkiozue herritarrari?

Ixiar Miner. Aholkularitza eta errenta aitortpenak egiteko aukera. Bezeroen artean, denetarik dugu. Autolikidazio proposamenak jasotzen dituzten batzuk, onartu baino lehen errebisatu egin nahi izaten dute. Aholkularitza zerbitzua eskaintzen diegu errenta konplexuagoak dituztenei. Bezero leialak ere baditugu, urtero etortzen direnak, kontuok aholkularitza baten esku uztea nahiago dutenak. Mekanizatua Ogasuneko langile batek doan egiten du, baina hara joaterako batzuk nahiago dute geure esku uztea, konplexua delako eurentzat. Banketxeetatik ere bezeroak bidaltzen dizkigute. Urtean zehar autonomoak diren bezero asko ditugu, eta jarduerak dituztenei aitortpena egiten diegu, gure zerbitzuen prezioaren barruan sartzen baita.

ARANTXA GOROSTEGI

“Kolpe handienak kanpaina hasieran eta bukaeran izaten dira”

Zuengana jo aurretik, zer aholkatuko zeniekete bezeroei?

I. M. Garaiz ibiltzea, azken egunera arte ez uztea eta urtean zehar, Errenta Aitorpena egiteko beharrezkoak diren banketxe edo enpresetatik jasotako paperrak gordetzen joatea. Aholkulariak gero, beharrezkoak diren eta ez diren paperen arteko aukeraketa egiten du. Bestalde, aitortpena egiteko obligazioa ez duen jendeari ere agian interesatzen zaio egitea. Obligazioa urtez urtekoa baita; aurten egin beharra izan dezakegu eta datorren urtean ez.

Errenta Aitorpena euskaraz egitea hautatzen dutenak nagusitzen doaz?

I. M. Bezeroen artean, badira oso leialak izan eta euskaraz egitea eskatzen dutenak. Egia da ere, duela urte batzuk Euskara Planean sartu ginenetik Errenta Aitorpen asko euskaraz bidaltzen saiatzen

garela. Hala ere, bezeroak aitortpena ondo egitea nahi du, eta emaitza da eurentzat garrantzitsua.

Buruntzaldeko udalen Euskara Planean parte hartu duzue. Zergatik erabaki zenuten urrats hau ematea?

I. M. Bezeroengatik sartu ginen. Bezero euskaldun dezentek ditugu; partikularrak, autonomoak eta enpresetakoak, baita euskara eta kultur munduko elkarte asko ere. Lau bat urte egingo genituen Euskara Planean. Gero geure kontutik jarraitzeko erabakia hartu genuen. Berrito noizbait halako lanketa egitea halere, ez dugu alboratzen. Euskara Planari esker, irizpide asko jarri ditugu lan egiterako orduan. Bezero askori zerbitzu guztiz euskalduna ematen zaio. Beste kasu batzuetan, bezeroekiko harremana euskaraz dugu, eta programa informatikoez uzten duten heinean ere euskaraz egiten dugu. Halere, badira euskaraz burutzea ezinezkoak diren gauza batzuk, geure esku ez daudenak.

Zerbitzua euskaraz eman nahi, baina hutsuneekin topo egingo zenuten sarri?

A. G. Administrazioarekin arazo handiak ditugu. Erregistroarekin, euskaraz jakin eta euskaraz eskritura dezentek egingo dituen notarioak aurkitzeko.

I. M. Jaurlaritzak berak web orrialdeetan ereduak gaztelaz bakarrik ditu. Dena egin behar duzu, oso gauza gutxi dago egina. Aspektu laboralean asko aurreratu dugu, nominak eta euskaraz egin ditzakegu. Baina kontabilitatean kostatzen ari zaigu. Hor lan handia dago egiteke.

Kanpainan zehar, bezero kolpeak izaten dituzue?

Arantxa Gorostegi. Kolpe handienak kanpaina hasieran eta bukaeran izaten dira. Erdialdean lan erritmoa mantsotu egiten da.

Aldaketarik izango al da abiatzearen kanpaina honetan?

A. G. Berdintsua izango da. Baina aldatetaren bat bada. Aitorpenean beste



HATOR GESTORIAKO KIDEAK.

informazioen bat sartzen baduzu, aurten erregistro elektronikoa jarri dutenez, paperak eskaneatuta bidaltzeko aukera izango da, Ogasuneraino joan beharrik izan gabe. Errenta Aitorpena hasiera batean okerrago ateratzen da bestalde. Gehiago ordaindu beharko dugu, orain arte kapital higigarrian atxikitzen zutena ordaindu beharreko kopuru berdina baitzen. Aurten ordea gutxiago atxikiko digute.

I. M. Bestela, errenta mailak gora egin ahala Zapateroren 400 euroak kentzen joango direla ere gogorazai behar da.

Epeak

-Autolikidazio proposamenak onartzea: 2011ko apirilaren 12tik maiatzaren 6ra.

-Errenta mekanizaturako hitzordua eskatzea: 2011ko apirilaren 15etik ekainaren 10era (epea luzatu daiteke ordu librean egonez gero).

-Aitorpenak aurkezteko epea: 2011ko apirilaren 18tik ekainaren 25era.

Mekanizatua egiteko non

- Donostian (Antso Jakituna, 9): Usurbilgo herritarrek.

- Hernanin (Latsunbeberri 8-9): Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietako herritarrek.

Informazio gehiago

Tlf: 902 100 040.

Web: gipuzkoa.net/ogasuna

Usurbilen

Lourdes gestoria, Etxebeste 9 kalean



EUSKARAZ ERRENTAGARRIAGOA!

**2010EKO ERRENTA AITORPENA
EUSKARAZ EGIN DEZAKEZU!**

**ZUREKIN AURTEN BURUNTZALDEAN
%15 IZATERA IRITSIKO GARA!**

**Informa zaituz gure webgunean:
<http://euskara.buruntzaldea.org>**

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak.
Euskarako Batzordeak.



Maiatzaren 14an, Jexux Artze taldearen eskutik, "Xabier Lete gogoan" kantaldia Oiardo kiroldegian

Antton Valverde, Pier Paul Berzaitz, Amaia Zubiria, Paco Ibañez eta Joxean Artze. Hauek dira Oiardo kiroldegiko ohol-tza gainera igoko diren artistak. Helburua, iazko abenduan zendu zen beste artista baten lana gogora ekartzeta. "Xabier Lete gogoan" kantaldia-ekin amaituko da Jexux Artze taldeak urtero maiatza partean antolatzen duen kultur aste modukoa.

Jexux Artze kultur taldeak kontuan hartzeko moduko hiru ekitaldi iragarri ditu.

Maiatzak 7 larunbata Antzerki saioa Sutegin

20:00etan Sutegin "Larria, Kutsakorra, Mendebaldekoa" antzezlan-a. Sarrerak: 8 euro aldez aurretik Lizardi dendan; 10 euro egun berean.

Maiatzak 13 ostirala "Izarren argia" pelikula

20:00etan Sutegin "Izarren argia" pelikula. Saturrararen, 1.500 emakume preso izan zituzten 1939tik 1944ra. Iraupena: 90 minutu. Sarrerak: 2 euro, aldez aurretik Lizardi dendan eta egun berean Sutegin.

Maiatzak 14 larunbata "Xabier Lete gogoan"

22:00etan Oiardo kiroldegian "Xabier Lete gogoan" kantaldia. Kantariak: Antton Valverde, Pier Paul Berzaitz, Amaia Zubiria, Paco Ibañez. Hauekin batera, Joxean Artze olerkaria ere arituko da Leteren omenaldi honetan.

Sarrerak: 12 euro aldez aurretik eta 15 euro egun berean. Lizardi dendan eta Oiardo kiroldegian, kutxa.net edo Telekutxan (943 001 200).



HAINBAT KANTARIK HARTUKO
DUTE PARTE OMENALDIAN.



erredakzioa@noaua.com
www.noaua.com

**Aste Santuan ez da NOAUA! aldizkaririk izango
Datorren alea maiatzaren 6an argitaratuko dugu**

**Oharrak, deialdiak, zorion-agurrak... ekartzeko azken eguna: maiatzak 2 astelehena.
Bien bitartean, Interneten aurkituko gaituzue www.noaua.com web orrialdean
Gizarte sareetan: [facebook.com/noaua](https://www.facebook.com/noaua) twitter.com/noaua**

Marasma saretzen hasi dira gazteak...

Gazteen ikuspegia jasotzen duen diagnostia prestatu du herrian sortu berri den Usurbil Saretzen gazte taldeak. Emaizta, larunbat arratsaldeko 18:30etan aurkeztuko dute Mikel Laboa plazan. Euskal Herriko beste hainbat txokotan ere antzeko ekimenak bideratzen ari dira hainbat gazte talde. Abian da Marasma Saretzen prozesua.

Aldaketa asko jasan ditu gazteriak hamarkadotan. Bere kolektibo izaera eta gazte problematikaren kontzientzia galdu izanaren kezkaz, sakabanatu direla ondorioztatuta, gazteen kontzientzia eta euren motibazioa berpiztu, gazteria eta euren kezkak ezagutu, eta gauzak aldatzeko gai direla ikusaraztea da Marasma Saretzen prozesuaren helburua.

Gazteek asko hitz egiten dela diote mugimendutik, baina nortzuk eta zer ikuspegitik egiten den beste kontu bat da hori. Horregatik, "eta gazteok zer diogu?" galdera erantzutera datorren prozesua da Marasma Saretzen.

Azaroaren 20an "Imagina" izeneko bideokliparen grabaketarekin batera aurkeztu zenetik Euskal Herriko txoko desberdinetan egun youtuben ikus daitezkeen hainbat bideo grabazio burutu dira, lekuan lekuko gazteen erradiografia islatzen dutenak. Egileak lekuan lekuko gazte taldeak dira.

Arazoei taldean aurre egin

Usurbilen ere sortu da gazteen bilgunea hau; Usurbil Saretzen izenarekin. Bi hilabetez fanzine bat baliatuta, herriko 16-25 urte arteko ehun gazte elkarrizketatu ostean, diagnostia osatu du Usurbil Saretzen taldeak. Diagnostia bideo formatuan kaleratu dute. Youtube-n ikus daiteke "Usurbil saretzen" hitzak idatzi-



EUSKAL HERRIKO HAINBAT TXOKOTAN HASI DIRA MARASMA EKIMENA SUSTATZEN.

ta. Gazteek aipatu dituzten arazoak zerrendatu dituzte eta horiekin diagnostia osatu. Usurbil Saretzen taldetik aipatu dutenez, "arazorik handiena, arazoei ez diegula aurre egiten, eta hori gaingiditu beharra aipatzen da", zehazten dute. Nola ere ondorioztatu dute; "arazoak kolektiboak dira eta kolektiboki aurre egin behar zaie".

Asteburu honetako hitzorduarekin batera, diagnosiari buruzko iritzia eman edo proposamenak egin nahi dituenak, helbide honetara idatzi dezake: usurbilsaretzen@euskalherria.org. Gazteak hitza hartzerantz animatzen dituzte. Marasmasaretzen.tk web orrian informazio gehiago ere jaso daiteke. Lekuan lekuko diagnosiarekin, Euskal Herri mailan eraiki nahi duten sarea zabaltzen joatea da asmoa. Diagnosti fasea amaituta, eztabaida eta lanketari ekingo diote.

Gazteen hitzordua, larunbatean

Orain artean buruturiko lanketaren emaitza ikusgarria eta gardena izatea nahi dutenez, aurkezpen ekitaldirako herri erdiguneko plaza hautatu du Usurbil Saretzen taldeak.

Larunbat honetan, apirilaren 16an aurkeztuko dute herriko gazteek gazteekin eginiko diagnostia:

18:30 Usurbilgo diagnostikoaren aurkezpena eta eztabaida Mikel Laboa plazan.

Ondoren, afari-merienda eta poteoa. Deitzailea: Usurbil Saretzen.

Apirilaren 23an Soraluzen Matxinsalto ekimena

Marasma Saretzen mugimendua jarri du apirilaren 23rako, Soraluzen. Marasma mugimenduarekin lotura duen Matxinsalto ekimena aurkezteko baliatuko da hitzordua. Goizean arlo desberdinak jorrazteko tailerrak izango dira, eguerdian, Euskal Herriko produktuekin prestatuturiko bazkaria dastatzeko aukera eta arratsaldean eztabaida saioak eta eguna borobiltzeko kontzertuak antolatu dira bertan. Usurbil Saretzen taldetik Soraluzera joateko deia egiten diete gazteei.

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42



Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA

659 602 789

Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL 943 37 29 37

Paleta Goma Txapelketa, izen-ematea ireki da

Maiatzaren erdialdean hasiko da Paleta Goma Txapelketa. Baina dagoe-neko ireki da izena emateko epea. 18 urtez gorako usurbildar orok har dezake parte. Finala Santixabeletan jokatuko da.

Bi pilotarien izenak eman behar dira. Partiden egutegia hasieratik zehaztuta geratuko da eta ezingo da inolaz ere aldatu. Horretarako izango dira ordezkoak.

-Izen ematea: 20 euro.

-Partidak: Igande arratsaldetan 17:30etik aurrera eta izen emate kopuru handia balitz maiatzaren 2ko bileran zehaztuko litzateke beste egun bat.

-Lehiaketa sistema bikote kopuruaren arabera zehaztuko da.

-Izena emateko: 626 110 923.

-Usurbildarrek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

-Txapelketaren nondik norakoak

zehazteko maiatzaren 2an bilera egingo da arratsaldeko 20:00etan herriko pilotalekuan.

-Baldintza hauek betetzen ez dituen bikotea lehiaketatik kanpo geratuko da.

-Pilotak antolatzaileak jarriko dituzte eta partidak 25 tantura izango dira.

-Euria eginez gero Aginagara joateko aukera egongo litzateke.

-Emakumeen arteko txapelketa jokatu-ko da gutxienez hiru bikotek izena eman- ez gero.

-Iaz bezala lehenengo partidakoek eserlekuak kendu beharko dituzte, eta azkenekoek jarri.

-Era berean bikote bakoitzak aurreko partidako epaile egin beharko du.

-Azken aurreko partida dutenek bikote batek beraien aurreko partidaren epaile egingo dute, eta beste bikoteak azkeneko partidako epaile.

Oharra: betaurrekoak antolatzaileak jarriko ditu nahi dituenarentzat. Pilota



IAZKO IRABAZLEAK: XABIER ERRASTI
ETA MANUEL GALARRAGA.

elkartearik bi betaurreko pare jarriko ditu aurrelarien eskura begiak babestu ahal izateko. Hori jantzi ezean, begietan pilotakada bat jasoz gero seguruak ez du erantzuten eta norberaren ardura izango da guztiz.

400 lagun Tximeleta Txapelketan

Pasa den larunbatean, Tximeleta Txapelketa ospatu zen Usurbilgo Kiroldegian. 440dik gora partehartzaile elkartu ziren.

Usurbilgo gimnasia erritmika taldearekin batera, beste hauek ere hartu zuten parte: Axular Lizeoa, Jakintza ikastola, Ikasbide Ikastola, Koldo Mitxelena Ikastetxea, Haurtzaro Ikastola, Elizalde Herri Eskola, Cristobal Gamon Ikastetxea, Zurriola ikastola, Jesuitinas Ikastetxea, English School, Intxaurren Hegoa Ikastola, Intxaurren Ikastola, Herrera Ikastola, Udarregi Ikastola eta Peñafiorida Institutua.

Tximeleta taldekoek entrenatzaileen lana "izugarritzakoa" izan zela diote, eta jendearen erantzuna oso ona izan zela. Halaber, "eskerrak eman nahi dizkiogu Gipuzkoako Gimnasia Erritmikoko Federazioari, aurten 25. urteurrena ospatzen dugulako", eta baita familiei ere, denen ahaleginari esker jaialdia ondo baino hobeto atera zelako.

Txapelketaren argazki guztiak www.clubtximeleta.com web orrialdean daude.

Bestalde, ikasturte bukaerako jaialdi asko daude iragarriak ekaina bitartean, eta Tximeletakoak ere bertan izango dira.



TXIMELETAKOAK, LARUNBATEAN
KIROLDEGIAN EGINDAKO SAIDAN.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea - 943 365 348 - 609 888 021

Josue
Igeltseritza:

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

**BENTA
TABERNA**

Oilasko erreak
Ogitartekoak

San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Bikain hasi du denboraldia Buruntzazpi taldeak

Larunbat honetan, Buruntzazpiko bi izango dira Euskadiko selekzioan parte hartuko duten txirrindulariak. Espainiako herrialde ezberdinetako txirrindulari jubentilekin batera lehiatu beharko dute Zumaian, 15:00etan hasiko den lasterketan. Ilusio handiarekin hartu zuen selekzioaren deia Xabi Bengoetxea. Ramon Unanue entrenatzaileari eman dizkio meritu denak. “Sei karrera egin ditugu eta Xabier Peñagarikano bi irabazi ditu eta nik bat. Entrenadore oso ona dugula esan nahi du horrek. Eta maila baduela Buruntzazpi taldeak”.

NOAUA! Noiz hasi zinen txirrindularitza?

Xabier Bengoetxea. Txikitatik beti gustatu izan zait. Ni eta lagun bat, Xabier Peñagarikano, duela lau urte animatu ginen. Futbolarekin nazkatu eta bizikletan hasi ginen.

XABIER BENGOETXEA

“Debako garaipena oso garrantzitsua izan da niretzat, konfiantza hartzeko”

N. Buruntzazpiko taldean, ezta?

X. B. Lehen bi urteak Donostian eman genituen. Eta gero Buruntzazpirekin hasi ginen. Haimar eta Joseba Zubeldiaren entrenatzaile izandakoarekin, Ramon Unanuearekin.

N. Gogorra al da zuekin?

X. B. Entrenadore batek exijitu egin behar izaten du beti... Baina oso gustura gaude berarekin.

**N. Kirol gogorra da. Ondo uzta-
tzen al dituzu ikasketak eta entrena-
mentuak?**

X. B. Nahikoa ondo. Orain arte, modulu bat egiten izan naiz Elogibarren. Egunero trenetz ordubate joan eta beste ordubate etortzeko. Denbora asko kentzen zidan. Eta egunero entrenatu behar da. Baina orain praktikak egiten nabil Usurbilgo enpresa batean eta askoz hobeto moldatzen naiz entrenatzeko.

**N. Aurreko astean lasterketa irabazi
zenuen Deban. Zure lehen garaipena
izan al zen?**

X. B. Ez, bigarren garaipena da hau. Iaz Gipuzkoako Itzulian irabazi nuen, Segurako etapa. Oso polita izan zen. Debako garaipena (duela bi asteburu-koa) konfiantza hartzeko oso garrantzitsua izan da niretzat.

**N. Egutegiari begira, beste etaparen
bat izango duzu begiz jota, ezta?**

X. B. Karrera batetik bestera, postua mantentzen saiatuko gara eta gero etortzen dena ongi etorria izango da. Begiz jota? Ba Gipuzkoako Itzulia. Lau etapa dira segidan, eta hor maila ematea inportantea da, datorren urtean taldea aurkitu ahal izateko.

N. Jubentil arteko taldeak ditu



XABIER BENGOETXEA (ARGAZKIAN)
ETA XABIER PEÑAGARIKANO
EUSKADIKO SELEKZIOAN DAUDE.

**Buruntzazpik baina afizionatueterako
talde bat bilatu behar izaten duzue.
Eta zu jarraitzeko gogoz zaude, ezta?**

X. B. Bai bai, nik afizionatueta jarraitu nahi dut. Talde bat topatzen badugu, ba lehen bi urtetan ahal den bezala estutu eta gero ea zer edo zer ateratzen den.

**Xabier Peñagarikano
Parisen izan da lehiatzen**

Xabier Bengoetxearekin batera Buruntzazpiko taldeko kide da Peñagarikano eta Espainiako selekzioarekin Parisen izan berri da. Larunbat honetan, Zumaian arituko dira biak, Euskadiren ordezkari moduan.



Birentzat otordua opari

Joxe Etxabe izan da azken saritua, eskubaloit taldekoekin egin ohi duten errifa zozketan. 7.422 zenbakia izateagatik Patri jatetxean bi lagunentzat otordua egokitu zaio. Ohi bezala, Usurbil KEtik zozketan parte hartzen duten jatetxeak eta errifak erosi ohi dituzten herri-tarrak eskertu nahi dituzte.

Usurbilgo Pilota Txapelketa, asteburu honetan Aginagan

APIRILAK 16 LARUNBATA

AGINAGAN 10:30EAN

JUBENILAK

Huegun-Millan / Maia-Almandoz
(Alde Zaharra) (Doneztebe)

NAGUSIAK

Muguruza-Jauregi / Alonso-Esnaola
(Bergara) (Alegia)

Arribillaga-Loiola / Etxaniz-Aizpuru
(Elgoibar) (Azpeitia)

APIRILAK 17 IGANDEA

USURBIEN 10:30EAN

JUBENILAK

Manzisor-Otegi / Leonet-Elorza
(Antiguo) (Hernani)

Hernandez-Imaz / Juaristi-Zubizarreta
(Oiartzun) (Azkoitia)

NAGUSIAK

Apezetxea-Galarraga / Arzelus-Otegi
(Bidegoien) (Lazkao)

Santixabeletako egitarauaren diseinu lehiaketa jarri da martxan

Maiatzaren 10ean amaituko da lanak aurkezteko epea. Lanak norbanakoen izenean edo taldeka aurkez daitezke. Hori bai, taldeen kasuan, lanaren ardura-dun bat izendatu behar da. Lan irabazleak 500 euro jasoko ditu sari moduan.

Egitarauaren diseinua egiteko, testua Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria zerbitzuan jaso behar da. Eta testu horretan oinarrituta egingo da diseinua.

Egitaraua euskaraz egingo da baina gaztelaniazko laburpena egitarauaren amaieran jarriko da. Letraren tamaina aldetik, euskarari lehentasuna emango zaio.

Estilo aldetik, pintura, akuarela, collage, argazkiak, digitala... Euskarri denak onartuko dira.

Lanaren neurria librea izango da.

Lanetan ez da egilearen inolako seinale-



500 EURO IRABAZIKO DITU LEHIAKETAKO LAN IRABAZLEAK.

rik agertuko. Datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia) gutun-azal itxi batean adieraziko dira. Gutunazalean izengoiti bat jarriko da, eta izengoiti hori bera agertuko da aurkeztutako lanaren atzealdean.

Diseinuan, hizkuntza eta irudien erabileraz ez sexista bermatu behar da.

Informazio gehiago: 943 371 999 /

kultura@usurbil.net

Maiatzaren 1ean, Andatza Eguna

Aste Santuko oporrak tarteko, ANOAU! aldizkaririk ez da izango maiatzaren 6a bitartean. Horregatik ekarri nahi izan dugu gogora ale honetan bertan. Hauxe izango da egitaraua.

11:00 Hamaiketako: salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.

12:00 Herri kirol eta jokoak haurrentzat eta helduentzat.

14:00 Bazkaria (norberak berea eramanda). Kafea eta kopa banatuko dira.

Goizean zehar, erromeria: trikitilari eta bertsolariak.

Antolatzaileak: Zizurkilgo Ziotza Elkarte, Usurbilgo Andatza Mendi Elkarte, Zizurkilgo Udala eta Usurbilgo Udala.

Aste Santuan, Gaztelekuak oporrik ez

12-16 urte arteko gazteei zuzendutako ekintza sorta prestatzen ari da Gaztelekuak ate joka dugun Aste Santuko oporraldirako. Apirilaren 15ean azken klase eguna baitute Udarregi ikastolako ikasleek eta gerora, bi asteko atsedenaldia...

APIRILAK 18, ASTELEHENA

16:00 Frontenis txapelketa DBH 3-4 mailetakoko ikasleentzat frontoian.

Ondoren, patata tortilla.

APIRILAK 26, ASTEARTEA

Arratsalde, "Multikirol Txapelketa" Zumaian DBH 2. mailako ikasleentzat, Zumaiaiko gazteekin.

APIRILAK 28, OSTEGUNA

Gaztelekuak eta Ziotza Gazte Taldeak elkarrekin antolatutako jaiak, egun osokoa.

11:00-13:00 Kermessa frontoian: Graffiti, Henna, Makillaje, Txapa, Antzerki eta malabare tailerrak.

13:30 Bazkaria frontoian (norberak etxetik ekarri beharko du janaria).

15:00 Baltsak egitea, Kalezarreko Haur Eskolan.

17:00-18:00 Baltsa jaitsiera, Haur Eskolatik behera Puntapaxeko zubirantz doan aldapan.

Ondoren, DJ Afrorekin musika eta dantza frontoian.

APIRILAK 30, LARUNBATA

Gaztelekuko zutabea margotzea. DBH 1. mailako ikasleei zuzendua.

ORDUTEGI BERRIA

Gaztelekuak ordutegi berri eta zabalagoa martxan jarria du.

Astelehenetan:

16:30-18:00 DBH 3. eta 4. mailak.

18:00-19:30 Gazte guztientzat.

Ostegunetan:

16:30-18:00 DBH 2. mailakoentzat.

18:00-19:30 Gazte guztientzat.

Larunbatetan:

16:00-17:30 DBH 1. mailakoentzat.

17:30-19:00 Gazte guztientzat.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Otar-Goxo
Elizkurgariak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Agenda!

Apirilak 14 osteguna
Hitzaldi-solasaldia Sutegin. Pako Aristi eta Benito Lertxundi. 19:00etan.

Apirilak 15 ostirala
Palestinari buruzko hitzaldia. Carmen Martiren eskutik, 19:00etan.

Apirilak 16 larunbata
NabarHerri: Kultura-gunera eta azoka. Egun osoan. (ikus 9 or.).

Apirilak 17 igandea
Korrika 17. 6:30ean, Orio aldetik Mapil aldera. Aginaga, kaxkoa, Kalezar, Santuena, Zubieta, Lasarte.

Goardiako farmaziak

Apirilak 14, osteguna
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Apirilak 15, ostirala
 Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 16, larunbata
 De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Apirilak 17, igandea
 De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Apirilak 18, astelehena
 Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Apirilak 19, asteartea
 Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Apirilak 20, asteazkena
 De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Apirilak 21, osteguna
 Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Apirilak 22, ostirala
 Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Apirilak 23, larunbata
 Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Apirilak 24, igandea
 Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

* Larunbatetan, *Usurbilgo bi farmaziak irekiita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
 Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani
 Telefono zenbakia: 943 336 077.

Erroizpe elkartekoak ere, Gernika-Usubil ekimenarekin bat



GERNIKAKO AKORDIOAREKIN BAT EGIN DUTEN HERRIKO TALDE ETA ELKARTEEN ZERRENDA HANDITZEN DOA. TXOKOALDEKO ERROIZPE ELKARTEKO BAZKIDEEK ERE BAT EGIN DUTE.

Palestinari buruzko hitzaldia eta erakusketa

Egun hauetan, "Rumbo a Gaza" Eizeneko erakusketa ikus daiteke Sutegin. Ostegun eta ostiral honetan, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Ostiralean gainera, Palestinari buruzko hitzaldia egingo da Sutegin bertan, arratsaldeko 19:00etan hasita. Carmen Martí izango da hizlaria.

Ostiral honetan, Floren Aoizen hitzaldia

Aterabide demokratikoak hizpide Ahartuta, Floren Aoiz arituko da hizlari lanetan. 19:00etatik aurrera, Sutegin. Herri Batasunako parlamentari izan zen Nafarroan. Azken urteotan, hainbat liburu idatzi ditu Nafarroako historiari eta euskal gatazkari buruz.

Ziortza Gazte Elkartearen oharra

Ziortza Gazte Elkarteak martxoan zegin zuen udako kanpaldietan izena emateko kanpaina. Hirugarren txandan, LH 5 eta 6 mailakoei zuzenduriko txandan hain zuzen, kanpamendurako duten azpiegiturak jasan dezakeen baino haur kopuru handiagoak eman du izena. "Guk 40 haurrentzako tokia dugu, eta 52 apuntatu zaizkigu. Eskertzen dugu horrelako interesa piztu izana, baina haur guztiak behar bezala zaindu ahal izateko ezin dugu kopuruz pasa. Hori dela eta, plazak banatzeko egokiena zozketa egitea dela erabaki dugu".

Zozketa irekia **apirilaren 16an izango da, eguerdiko 12:00etan Apaiz Etxean**, Hala ere, plazarik gabe geratu diren haurrekin harremanetan jarriko dira itxaron zerrendan nola geratu diren adierazteko.

JUANTXO
 BURDINDEGIA
 Zubiaurrenea 8
 943 370 008

TAXI 24h
 Jose Etxabe USURBIL
 677 37 34 66
 943 36 21 78

URDAINTZI
 eraikuntzak
 649 43 54 75 / 76
 943 36 72 64
 ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ALIPROX
 Kale Nagusia 10
 943 361 182
 USURBIL

ETXEBIZITZA

- 78 metro karratuko pisu bat alokatzen dugu Atxegalden. 3 logela, egongela, bi komun, sukaldea, balkoia, berogailua eta igogailua. 637309209.
- 85 metro karratuko etxebizitza bat alokatzen dugu Usurbilko Kaxkoan. 3 gela, bi terraza eta trasteroa. Bermea eskatuko da. 616064059 (gautetan deitu).
- Usurbilen alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Idioia 695733535.
- Kaxkoan pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komuna. Tlf: 670070562
- Santuenean etxe bat alokatzen da. 679 366 415.
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitsua eta bizitzaren jarzako moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Inaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska eskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukeraerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauetz).
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursaillean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Volkswagen Golf III TD bat daukat salgai. 134.000km dauka eta ogoera onean dago. 610812739.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremu salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dugu Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-esaerak

- Emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Interesaturta bazaude 615756893.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilta. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago dugu Usurbilgoa eta eskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrik emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarrerri Ikastolako idazkarizatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Herriko emakume eskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Orduetegi malgua (egunez zein gauetz) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gauean adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrik ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igelseteritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gazteak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein

- haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbizari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- "Cama nido" bat daukagu behar duenari emateko. Egur kolorezkoa eta urdina da, 1,90x0,90 neurritakoa. Interesatuak deitu 650521750.
- Umea kotxean eramateko ziurtasun aukia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburutegian, marxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxetan, elkarre gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesaturta bazaude: 669645585 / 943365191.
- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Umea eramateko "mendiko motxila" erosiko nuke. 647973854.
- Hemengo intxaurrak salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60. Edurne.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- Wii konsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiai kargatu ahal izateko. DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikulu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbiztu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



Zorionak Olaia! 3 urte bete zenituen apirilaren 9an. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



Zorionak Arrate! Sei urte beteko dituzu maiatzaren 6an. Muxu asko eta zorionak familiaren partez!



Zorionak Ekhi! Apirilaren 13an 3 urte beteko dituzu txiki, ondo pasa amatxo eta aita-txoren partez. Muxu



Zorionak Jon, dagoeneko 6 urte, hoiek bai direla pilla pilla patata tortilla! Ondo ondo pasa eta muxu handi bat Nora, Amatxo eta Daddy-ren partez.



Zorionak Harriet! Dagoeneko urte bat bete du gure pottoloak. Muxu handi bat Beñat, aitaixo eta ama-txoren partez.

Oharrak, zorion agurrak, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. E-posta: erredakzioa@noaua.com
Hurrengo alea: maiatzak 6.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 - 943 370 344

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegija - Gozotegija

LABE-GOXO

BERRIaren eskutik

apirilaren 16an
zure kioskoan



+ 12€

19
ABESTI
+ 19
BIDEOKLIP



CD-DVD eta
LIBURUXKA

Ene Kantak

Partehartzalleak:

Pirritxe eta Porrote, Gorka Urbizu eta Galder Izagirre (Beri IzarraK),
Urko Oskoz, Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi), Jon Barberena, Julia Soto, Estitxu
Arozena, Ader Riesgo, Oier Sanjurjo, Mikel Labaka, Mikel Aranburu, Bittor
Alkiza, Tiko, Juan Martinez de Irujo, Gotzon Barandiaran, Nerea Urbizu...

zonalde "EZ" euskalduneko gurasoentzako dirulaguntza.
euskal eskola publiko BERRIaren alde






Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

Martxoan eta apirilean, zenbat bezero hainbeste sari!

Hurbilago txartelarekin, 50, 20, 10 eta 5 €ko 100 erosketa-sari baino gehiagoren zozketan parte hartuko duzu.

Hurbilago txartelarekin ordaindutakoan, datafonoko fikean azalduko zaio bezero sarituar bere erosketa-saria. Erosketa-sariaren trukea, Hurbilagoko edozein establezimendutan egin ahal izango da. 2011ko maiatzaren 31 baino lehen eta egindako erosketa berri baten zenbatekotik deskontatuko da.



hurbilag

Usurbilgo Merkataritza



Usurbilgo Udala

Usurbil osasuna atez-ate



Baitabi



Baitabi